

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2232

IRAGARKIA, 2023ko maiatzaren 3koa, Arabako Industria Administrazioaren lurralde-ordezkararena, Lantarón (Araba) udalerrian «4,995 MWn/6,240 MWp-ko Lantarón instalazio fotovoltaikoa, 30 KVko sarearekin lotura duena», egiteko proiektua jendaurrean jartzeko dena.

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen IX. tituluan eta Energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, jendaurrean jartzen da proiektu hau:

– Eskatzailea: FV Comunion I, S.L.; IFK: B05312533; helbide soziala: Conde Don Vela kalea 54, Vitoria-Gasteiz.

– Eskatera: aldez aurreko administrazio-baimena eta eraikuntza-baimena.

– Xedea: energia elektrikoa sortzea teknologia fotovoltaikoaren bidez.

– Erreferentzia: 01 GEY 202200012: – «4,995 MWn/6,240 MWp-ko Lantarón Instalazio Fotovoltaikoko Proiektua, 30 KV-ko Sarearekin lotura duena».

– Instalazioaren ezaugarriak:

- Lurrean dagoen planta fotovoltaikoa, 600 Wp-ko potentziadun 10.400 panel fotovoltaikok eta 25 inbertitzailek osatua (200 kW-ko 24 eta 195 kW-ko 1).

- 3250 kVAko 2 transformazio-zentro, hau da, egurats zabaleko transformadorea eta ETko gelaxkak, gainazalerako eraikin prefabrikatu trinko batean.

- Gainazaleko eraikin aurrefabrikatua ETko gelaxken bidez ebakitzeko zentro bat.

- Comunion II Parke Fotovoltaikoaren Sekzionamendu Zentrotik ebakutzeko linea elektrikoa. Zentro hori aireko eta lurpeko lotura bikoitzaren bidez lotuta dago, banatzeko sarean, «LAMT – L1, Miranda – Puentelarra»-n (65 eta 66 euskarrien artean).

- Instalazioaren potentzia: 4,995 MWn

- Instalazio fotovoltaikoaren kokapena: 4. poligonoa, 796. partzela, Lantarón (Araba).

- Aurrekontua: 1.783.867,00 euro

• Proiektuari ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin behar zaio, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 76.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Guztiek jakin dezaten ematen da argitara azaldutakoa, proiektua Arabako Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz) edo Interneteko www.euskadi.eus webgunean (Energia eta Meategiak/Energia ataleko Proiektuen Jendaurreko Informazioaren atalean) aztertu ahal izan dadin (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/energia-meategiak/>

2023ko maiatzaren 12a, ostirala

hasiera/); horrela, egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dira, hogeiei eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 3a.

Arabako Industria Administrazioiko lurralde-ordezkaria,
PEDRO RODRIGUEZ DIAZ.